

**IKASTETXEKO
HEZKUNTZ
PROIEKTUA (I.H.P.)**



Haztegi Ikastola Koop. Elk., gestio demokratikoa duen irakaskuntza kooperatiba euskaldun eta pluralista definitzen da.

Bere helburua pedagogia berritzaile baten bidez irakaste eraikitzaile eta esanguratsua bultzatuz, konpetentzietan oinarritutako ikasleen hezkuntza integrala bilatzen da.

AURKIBIDEA

EUSKARA ETA EUSKAL KULTURAREN transmisio, bilakaera eta sustatzearen aldeko konpromezua duen erakundea.....**3.orriadea**

IDEIA eta SINISMENA DESBERDINAK errespetatzen dituen erakundea.....**3.orriadea**

Pedagogia BERRITZAILE baten bidez, apendizaiia ERAIKITZAILE eta ESANGURATSUA bultzatuz, ikasleen HEZKUNTZ INTEGRALA helburutzat duen erakundea.....**4.orriadea**

Duen IZAERA inguruko gizartean.....**4.orriadea**

HELBURU batzuk finkatuta dituen erakundea.....**6.orriadea**

EGITURA baten inguruan antolatutako hezkuntza komunikabidea.....**12.orriadea**

I. IDENTITATE EZAUGARRIAK

1. HIZKUNTZA ETA KULTURA

- 1.1. Haztegi Ikastola Euskal Herrian txertatuta dago eta horregatik, gainontzeko herrialde eta herrietako kulturei zabalik egonik, euskara eta euskal kultura bultzatzen du.
- 1.2. Euskara izango da irakasle, beste langile eta ikasleen arteko harremanak bideratzeko erabiliko den hizkuntza bakarra. Gurasoekin ematen diren harremanetan euskarak lehentasuna izango du.
- 1.3. Ikuspegi honetatik, Haztegi Ikastolak ikaslegoaren eleaniztasuna alde apustu egiten du.
- 1.4. Guzti hau bermatzeko, hizkuntza proiektu bat garatu da.
- 1.5. Identitate digitala sortuko du Ikastolak ere euskaran oinarritua.

2. ANIZTASUN IDEOLOGIKOA

- 2.1. Ikastola erakunde pluralista da eta guztion elkarbizitza hobeago baterako, bere inguruan finkaturik dauden ideia politiko filosofiko eta erlijio desberdinekiko errespetu osoa indartuko du.
- 2.2. Politika eta gizarte ardurari dagokionez, guraso, langile eta ikasleek dituzten aukerak errespetatuko dira.

Ikastolak, politika, ekintza kultural gisa adieraziko du eta ez du inoiz proselitismoa suposa dezaken jarrerarik onartu eta mantenduko.
- 2.3. Erlijioa gauzatzeari dagokionez, guraso, langile eta ikasleen sineskera errespetatuko da. Ikastolak erlijioa kulturazko iharduera gisa adieraziko du eta doktrinamendu arloa, eskolako ekintzatatik kanpo bideratu behar dela ulertzen da.

3. GESTIO ERA

- 3.1. Ikastolako partaideek: gurasoek, irakasleek eta gainontzeko langileek, denek parte hartu behar dute Ikastolaren gestioan eta aktiboki lagundu berorren funtzionamenduan.
- 3.2. Lan honetan laguntzeko, Ikastolen Elkarteak (Euskal Herriko Ikastolak biltzen dituen) parte hartuko du.

4. METODOLOGIA

- 4.1. Ikastolak, ikasleek dituzten konpetentzia guztien, digitalak barne, garapen armonikoaren bitartez, hezkuntza integrala bilatuko du, gizarteak eskatzen dituen erantzukizunak era baikor eta arduratsuan bete ditzaten.
- 4.2. Haurtzaroko heldugabezia eta menpekotasunetatik abiatuz, gaztaroko heldutasun eta autonomiarantz bideratzeko, ikasleek erabakiak hartzeko ahalmena eta arabaki horien erantzule izateko jarrerak bultzatzeko dira, oinarri metodologiko hauek kontutan izanik:
 - A) Irakaskuntza ikasleak dituen aurrezagupidetatik abiatuz antolatuko da, horrek era esanguratsuan eraiki dezan bere konozimendua.
 - B) Ikaslea bera ikasbidearen protagonista aktibotzat hartzen da, Duen ahalmenaren arabera eta Ikastolako baliabideen laguntzarekin, ikasleak ekintzak antolatu eta aurrera eramaten lagunduko du.
 - C) Ikaslea gizaki soziala denez, horretara lagunduko duen irakaskuntza bultzatuko da, edozein pertsona integratuz eta onartuz. Ikasleen arteko elkarreraginak duen garrantzia kontutan harturik, egitura kooperatibo batetan antolatuko dira ikaskuntzaren ekintzak. Behar diren bitartekoak jarriko dira sexu, gaitasun, arraza, erlijio, elbarritasun, arrakala digitala eta abarreko ezberdintasunak diskriminazioaren iturri izan ez daitezen.
 - D) Irakaskuntzaren helburua ez da disziplina edo arloa bera izango, errealitatea ezagutu eta bizitzarako prestatzeko baliagarria izango zaigun tresna baizik; honek, irakasleak helburuetan dituen trebetasun eta ahalmenak lantzeko bidea emango du, ikasleak hauek bere bizitan

(maila esanguratsu nahiz funtzionalean) txertatu eta erabiltzeko gai izan daitezten. Konpetentzietan oinarritutako irakaskuntza izango da.

- 4.3. Ikastolak zatigaitzat hartzen du edukizko (kontzeptual, prozedurazko eta jarrerakoen) eta konpetentzien irakaskuntza.

5. BERRIKUNTZA PEDAGOGIKOAK

- 5.1. Haztegi ikastolako irakasleen taldean berrikuntza, esperimantazioa eta ikerketa giroa indartuko dira, irakaskuntzaren prozesu guztiak etengabeko hobekuntza bidean egon daitezten.

6. KANPO PROIEKZIOAK

- 6.1. Ikastolaren izaera orientabideak berau kokatuta dagoen gizartean islatzea zainduko da. Hau gauzatu dadin, Haztegi Ikastola inguruko erakunde eta elkarteekin lan egiteko prest agertzen da.
- 6.2. Arlo honetan, komunikazioak garrantzi handia hartu du gaur egungo gizartean, bereziki, baliabide digitalen bitartez burutua. Haztegi Ikastolak baliabide horien erabilera egokia bultzatuko du bere komunitate osoan.

7. EBALUAKETA

- 7.1. Ebaluaketa esaten dugunean prozesu hezigarria gudu kontuan; bertan informazioa bildu, datuak aztertu, erizpenak egin eta gomendioak ematen dira gure hezkuntza proiektu honetan sarturik dauden aspektu guztien bilakaerari buruzko erabakiak hartu ahal izan ditzagun.

Bi ebaluaketa maila ezberdintzen ditugu:

- A) Erakundearen ebaluaketa.
- B) Kurrikulumaren ebaluaketa.

II. HELBURUAK

1. HIZKUNTZA ETA KULTURAREKIKO HELBURUAK

1.1. IKASLEGOAREKIKO

- 1.1.1. Ikastolan komunikabide hizkuntza gisa euskara bakarria erabiltzea.
- 1.1.2. Hezkuntza komunitateko kideen artean ere euskara erabilia izan dadin eragitea, bakoitzaren ahalmenaren arabera.
- 1.1.3. Euskararen komunitate digitalean parte aktiboa hartzen du.

1.2. LANGILEKOAREKIKO

- 1.2.1. Euskara menderatzeaz gaia, euskaraz biziko den ikaslea izaten laguntzea. Hau da, euskara Euskal Herriaren hizkuntza propioa dela eta, bertako biztanleok ohizko komunikabide erabiltzeko dugun beharra eta eskubidearen lekukotasuna ematea.
- 1.2.2. Ikasleei laguntzea gure Herri eta inguruko ohitura historiko, sozial eta kulturei buruzko funtsezko nozioak barneratu ditzan, euskarri digitalak hartu duten garrantzia ahaztu gabe. Euskal kulturaren transmisio, bilakaera eta sustatzean aktiboki parte hartzeko gai izan dadila, gainontzeko herrialde eta herrierako kulturarekin zabaldu erlazionatuz.
- 1.2.3. Ikastolan elkarrekin bizi diren partaide guztien komunikabidea euskara izan dadin eragile izatea. Honetarako sentimendua, sugestioa (euskaraz hitz egitea eta ingurune digitalean aritzera animatuz, baloratuz, oniritziz...) eta diskurtsoa (erreflexio eta arrazoiketa ihardunetako...) erabiliko direlarik.

1.3. GURASOEKIKO

- 1.3.1. Gurasoek bere lana onar dezatela eta lagundu dezatela euskararen erabilera bere familia ingurunera luzatuz, eta ohizko komunikabide (digitalak barne) gisa erabiliz familia kide eta hezkuntza komunitateko harremanetan.

2. ANTZINATASUN IDEOLOGIKOAREKIKO HELBURUAK

- 2.1. Hezkuntza Komunitateko kideen ideia eta baloreak errespetatzen saiatzea.
- 2.2. Ikasleari, bere ahalmenaren arabera, Ikastolaren Hezkuntza Proiektu honetan eta kurrikulum proiektuan ezarritako giza baloreak ezagutzen, kritikoki aztertzen eta errespetatzen laguntzea.

3. GESTIOARI BURUZKO HELBURUAK

- 3.1. Ikastolaren gestioan, Hezkuntza Komunitateko kide guztien partaidetza indartzea.
- 3.2. Ikastolako estamentu guztien artean, komunikazio erosoak lortzea.
- 3.3. Ikastolaren funtzionamendu digitala bultzatzea.

4. EGINDAKO OPZIO METODOLOGIKOAREKIKO HELBURUAK

4.1. IKASLEGOAREKIKO

- 4.1.1. Ikasketa prozesuaren eraikitzaile eta partaide izan dadin, ahalmenaren arabera iharduerak antolatzea, konpetentziak landuz.

4.2. IRAKASLEGOAREKIKO

- 4.2.1. Irakasleak bere buruaren irudi egoki eta zehatza egin dezan laguntzea, bere ezaugarriak, ahalmenak eta mugak ezagutuz:
 - bere aktibitatea (lana, aisia, afektibitatea.) autonomoki eta orekaturik bideratzen lagunduko dion autoestimua maila landuz
 - ahaleginak, lan indibiduala eta zailtasunak gainditzera baloratuz eta gainditzera bultzatuz.
 - norberaren bilakaera integralean lagunduz.

- identitate digital bat sortzen lagunduz.

4.2.2. Ikasleari laguntzea kurrikular nahiz profesionaletarako aukera desberdinen arteko erabaki egokiak hartzeko gai izaten, bere garapen pertsonal eta intelektualak kontutan izanik.

4.2.3. Ikasleen arteko desberdintasunak (sozialak, kulturalak, intelektualak, digitalak,...) konpentsatzen saiatuko da irakaslegoa, diskriminazioaren iturri izan ez daitezen.

Beraz, Irakaslea behar indibidualetara egokituko da, bakoitzaren ahalmenak maila gorenera garatuz.

4.2.4. Irakaskuntza esanguratsua izan dadin lortzen saiatzea honako pauso hauek zainduz:

- irakaskuntza berri bar jasotzeko beharrezkoak diren aurrezagupen eta baldintzak erabakitzea eta ikasleak zein neurritan dauzkan aurrebaldintza horiek ikustea,
- ikaskuntza berriak errazteko eta aurrezagutzekin erlazionatu ahal izateko, beharrezkoak diren ekintza eta materialak prestatzea.
- haurraren interesak kontutan harturik, modu egokian motibatu eta lana egiteko konpromezuaren beharra sortaraztea, lan hori erarik osotasunean burutu dezala eskatuz.
- haurrak informazioa bilatu dezan, banaka, talde txikian nahiz handian lan egin dezan..., gela modu egokian antolatzea.

4.2.5. Ikasleak eskolaz kanpoko ekintzetan parte har dezaten animatzea eta hau beraien bilakabide integralari zuzendutako denbora modura hartzea.

4.2.6. Ikastolan landutako edukien bidez ikasleek beren ingurunera eta euskal kulturara egokitzen ikastea; baina egokitzapen hori ez da konformista izango, aktiboa eta kritikoa baizik; hau da, ingurugiro orekatuago batean alde eta euskal komunitate justu era errespetatuago batean eraikuntzan aktiboki lan egitera orientatua.

- 4.2.7. Eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartuz, ikaslearen bilakabide eta oreka pertsonalari lagunduz bere aisialdi denbora arrazoiz banatzeko gai izan dadin laguntzea.
- 4.2.8. Gurasoekiko behar den kolaborazio eta harremana edukitzea, hauen seme-alaben gaitasun eta garapenari buruz informazioa jasotzeko eta arlo akademikoan, pertsonal eta profesionalean orientatu ahal izateko.
- 4.2.9. Aurreko lan guztiak burutzeko baliabide eta prestakuntza digitalak ematea.

4.3. GURASOEKIKO

- 4.3.1. Kolaborazio egoki bat edukiko dute irakaslekoarekin, ekintza pedagogikoa (kontzeptuak, prozedurak, jarrerak, baloreak, konpetentziak...) osatuta izan dadin.
- 4.3.2. Beren seme-alaben bilakabide intelektual, afektibo eta sentisu-motorearen etengabeko jarraipen zuzena egingo dute.
- 4.3.3. Beren seme-alabak aukera kurrikular eta profesionalean orientatu, beti ere ikaslegoak egindako lana eta interesatuaren erabakitzeke gaitasuna kontutan izanik.

4.4. IKASKUNTZA EDUKINEKIKO

- 4.4.1. Euskaraz zuzentasun, autonomia eta sormenez ahozko eta idatzitako mezuak ulertu eta ekoiztea, ikasleentzat komunikatzeko eta pentsamendua eratzeko baliogarria izan dadin. Era berean, gaztelaniaz ere antzeko menderatze maila lortzea
- 4.4.2. Ahozko eta idatzitako mezuak zuzentasun eta propietatez ulertu eta ekoiztea ingelesez, komunikazio testuinguru ohizkoenei erantzunez.
- 4.4.3. Ikaslearen komunikazio aukerak aberastearren, mezuak propietate, autonomia eta sormenez interpretatu eta ekoiztea, kode artistiko, zientifiko eta teknikoak **(ingurune digitala)** erabiliz.

- 4.4.4. Jakite arlo ezberdinetako problemak identifikatzeko eta burutzeko estrategiak landu eta garatzea, arrazoinamendu objektibo, sistematiko era zehatza erabiltzeko ohiturak sortuz eta bizitzako egoera ezberdinetan aplikatuz.
- 4.4.5. Ingurune fisiko eta naturala eta bera arautzen duten oinarrizko lege eta mekanismoak ulertzen lagunduko dien ezagutza jasotze, behaketa, esperimentaketa eta elkarreraginaren bidez zehaztasun zientifikoan pixkanaka sartuz.
- 4.4.6. Gizartearen funtzionamendua zuzentzen duten oinarrizko prozesu eta mekanismoak identifikatu, ezagutza hau gizarte garaikideak ulertzeko erabili, hauen arazorik larrienak aztertu, eta iritzi pertsonal kritiko eta arrazoitua eraiki.
- 4.4.7. Gorputzaren bilakabide eta osasunaren alde eraginkorki lan egitea: kirol, higiene eta elikadura ohiturak suposatzen dituzten mesedeak baloratuz eta zenbaki praktika sozialek (drogomenpekotasuna...) osasunarekiko dituzten ondorio ezezkorrak aztertuz eta horien arabera kokatuz.
- 4.4.8. Ikasleak lan-tekniken ezagutza eta erabilpenaren gaitzea, geroz eta autonomoagoa ikasten joan daitezen.
- 4.4.9. Gaitasunak eta lankidetzak ohiturak garatzea, ikasleen arteko elkarreragina bultzatuz.
- 4.4.10. Ikaslegoa, informazio bat lortu eta lantzeak suposatzen dituen gaitasunetan trebatzea: informazioa bilatu, izan dezaken edozein forma ulertu, egokia izan daitekena aukeratu eta besteei, era erabilgarri eta ulergarrian aurkeztu.
- 4.4.11. Sexua, ezaugarri psikikoak, sozial maila... direla eta, bereizketarik ez onartzea.
- 4.4.12. Ikaslea elkarbizitza eta lagunkidetasunaren ikaskuntzan orientatzea eta laguntzea, arrazoin gabeko inposaketarik gabe.

- 4.4.13. Ondare natural eta kulturala estimatzen, gozaten eta errespetatzen ikastea, bere hobekuntza eta iraupena zainduz.
- 4.4.14. Gure gizarteko ondare kulturalaren eta tradizioarenak diren sinismen, jarrera eta baloreak ezagutzea, kritikoki baloratu ahal izateko eta pertsona bezala bere bilakabide integrala hobekien bultzatuko duten balore edo zentzudun aukerak aurrera eraman ahal izateko.
- 4.4.15. Ikastolako kurrikulum proiektuan planteatuak ditugun giza baloreen aurkiketa eta barneraketatik abiatuz alde batetik eta gizartean agertzen diren balore/antibaloreen behaketa, azterketa eta ikerketa kritikotik bestetik, praktikarako konpromezuak (pertsonalak nahiz taldekoak) hartzea.
- 4.4.16. Balore/antibalore hauei dagozkien jokabide eta jarreraren ondorioz jabetzea pertsona bezala, bilakabide integrala hobekien bultzatuko duten baloreak aukeratu ahal izateko.
- 4.4.17. Ingurune digitala

5. BERRIKUNTZA PEDAGOGIKOAREKIN ERLAZIOATURIKO HELBURUAK

- 5.1. Irakaslegoaren formazio iraunkorra errazten ahaleginduko da Ikastola, arlo akademikoan, orientatzailean nahiz digitalean bere egunerokotze pedagogikoa bultzatuz.
- 5.2. Gurasoei, gestio-partaidetzan eta beren seme/alaben heziketan laguntzaile gisa dagozkien funtzioetan oinarritutako formazioa eskeintzen ahaleginduko da Ikastola.
- 5.3. Ikaslegoa saiatuko da:
 - A) Talde lana indartzen, ikaslegoaren artean koordinazio eta kolaborazio elementu eta erizpideak jarriz.
 - B) Gelatik aginkeria eta konpetibitatea baztertzen eta ikasleekin duen elarreraginean gure gizarteko ondare kultural eta tradizioaren baloreak transmititzen, ikasleak kritikoki baloratu eta bere aukera egin ahal izan dezan.

D) Hezkuntz-ekintzak gure inguru sozio-kulturalean txertatzea, ikasleen inguruarekin erlazionaturiko helburu eta edukiak sartuz, ingurune digitalari duen garrantzia emanez.

6. IKASTOLAREN KANPO PROIEKZIOAREKIKO HELBURUAK

- 6.1. Eskolaz kanpo, Ikastolak ezaugarritzat dituen identitate seinale guztiak (digitalak barne) nabari daitezen laguntzea, inguruko erakunde eta elkarteekin gure harremana sakonduz, bereziki, herriko erakundeekin eta Euskal Herriko Ikastolekin.

7. EBALUAKETAREKIN ERLAZIONATUTAKO HELBURUAK

7.1. ERAKUNDEAREN EBALUAKETA

- 7.1.1. Urtero, Gestio Batzordeak Ikastolaren urteko plangintza orokorraren ebaluaketa egingo du, bertan gure hezkuntz plangintzan ezarritako helburuen lortze maila aztertuko delarik.

7.2. KURRIKULUMAREN EBALUAKETA

- 7.2.1. Aurrez ezarritako helburuekiko ikasleak lortutako maila baloratzeak, ikasleagoak finkatutako helburu, eduki, iharduera, metodologia, baliabide eta ebaluaketa ereduari buruzko ausnarketa bat egitera behartuko du. Erreflexio honekin, ikasle bakoitzak zer, nola, noiz eta non ikasten duen ezagutu nahi da eta horrela bere garapen osoa lortzen lagundu.
- 7.2.2. Ebaluaketarako metodoa malgua da (ebaluaratu behar diren aspektuetara egokitua) eta jarraikortsunez eramango da (hezkuntz prozesu osoan). Prozesuaren tarde bakoitzean (zikloa, proiektua...) haserako ebaluaketa formatiko edo orientatzailearekin jarraituz, azken ebaluaketarekin amaituko da.
- 7.2.3. Irakaskuntz-aprendizaiaren ebaluaketa irakasleagoaren esku dago, guraso nahiz ikasleengatik jasotako informazioa beti kontutan izanik; honetarako ikasleari lagunduko zaio bere hezkuntz prozesuan autoebaluaketa egin ahal izateko gaitasuna garatzen joan dadin.
- 7.2.4. Irakasleagoak bere funtzio ezberdinak ebaluatuko ditu: hezitzaile, erakustzaile, eta tutoritzarenak. Baita programazaile, motibatzaile, ebaluatzaile, orientatzaile

eta hobekuntza jarraituaren atzetik dabilen profesional arloan egiten dituen lanak ere.

III. ANTOLAKETA

